

Ehuneke edo portzentajea

Demagun ikastetxe batean mutilen % 45 eta nesken % 55 daudela.

% 45 eta % 55 **EHUNEKOAK** dira. Ikusten dugunez % ikurra erabiltzen da eta honela irakurtzen dira:

% 45 = ehuneke berrogeita bost

% 55 = ehuneke berrogeita hamabost

Portzentaje batek ehunetik zenbat zati hartzen dugun adierazten du eta zatiki edo zenbaki hamartar gisa adieraz daiteke:

$$\% 45 = 100etik\ 45 = \frac{45}{100} = 0,45$$

$$\% 55 = 100etik\ 55 = \frac{55}{100} = 0,55$$

Konturatu mutilak eta neskak elkartzen baditugu % 45 + % 55 = % 100 geratzen zaigula, hau da:

% 100 = GUZTIAK

Nola kalkulatu dira ehunekoak?

Ehunekoak kalkulatzeko, zatiekin egiten genuen bezala egingo dugu:

Demagun, adibide moduan ipini dugun ikastetxean 800 ikasle daudela. Zenbat neska daude?

$$\text{Neskak} = \% 55 = 800en\ \frac{55}{100} = \frac{800 \times 55}{100} = 440\ \text{neska}$$

Emitza bera lortuko dugu bider 0,55 zenbakiz biderkatzen badugu:

$$\text{Neskak} = \% 55 = 800 \times 0,55 = 440\ \text{neska.}$$

Azkenik, kalkulagailu gehienek tekla bat dute ehunekoa kalkulatzeko, baina guztiek ez dute berdin funtzionatzen; beraz, metodorik errazena eta azkarrena zenbaki hamartarra erabiltzea da.

Ehunekoz egindako deskontuak:

Deskontua hasierako baliotik edo preziotik kentzen den kopurua da. Dendetan, urteko garai batzuetan, ohikoa izaten da beherapenak edo deskontuak egitea. Ikus dezagun adibide batekin nola kalkulatzen den deskontu bat:

Demagun ordenagailu batek 500 € balio zuela, baina % 15ko deskontua egiten dutela. Zenbat balioko du orain? Bi kalkulu egin beharko ditugu:

- Kalkulatuko dugu zenbatekoa den 500 €ren % 15 = $500 \times 0,15 = 75 \text{ €}$
- Deskontua egin ondoren ordaindu behar duguna = $500 - 75 = 425 \text{ €}$

Lasterbidea: hori bera azkarrago kalkulatu ahal dugu, pentsatzen badugu % 15 kentzean, % 85 kobratzen digutela (zenbaki hamartarrez 0,85 da); beraz, urrats bakar batean kobratuko digutena kalkula dezakegu:

- Kobratuko digute = $500 \times 0,85 = 425 \text{ €}$

Ehunekoz egindako gehikuntzak edo igoerak:

Gehikuntza hasierako balioaren edo prezioaren batuketa edo igoera da. Batzuetan faktura bati, garaiz ez ordaintzeagatik, errekaratu bat gehitu behar zaio, eta beste batzuetan, ikusten dugun prezioari BEZ izeneko zerga bat gehitu behar zaio, % 21 balioa duena. Ikus dezagun nola kalkulatzen den produktu baten prezioa BEZa barne:

Demagun telebista batek BEZik gabe 300 € balio duela. Zenbat kostatuko da BEZa barne? Bi kalkulu egin behar ditugu:

- Kalkulatuko dugu zenbatekoa den 300 €-ren % 21 = $300 \times 0,21 = 63 \text{ €}$
- 63 euroak gehitzen baditugu, ordaindu beharko duguna = $300 + 63 = 363 \text{ €}$

Lasterbidea: hori bera kalkulu bakar batean kalkula daiteke, pentsatzen badugu % 21 gehitzean kobratzen digutena % 121 dela (zenbaki hamartarrez 1,21 da); beraz, urrats bakar batean kobratuko digutena kalkula dezakegu:

- Kobratuko digute = $300 \times 1,21 = 363 \text{ €}$

Birpasatu ondo kontzeptu horiek, eta ondo ulertzen dituzula uste duzunean, sakatu "**ONDO ULERTZEN DITUT EHUNEKOEN KONTZEPTUAK**" dioen botoian, eta gero "**¡TERMINADO!**" dioen botoian, hurrengo fitxarekin hasteko.

ONDO ULERTZEN DITUT EHUNEKOEN KONTZEPTUAK